

Aingern Epaltza

Galdu genuen gerla hura

N

ire ezagun batek ANV-EAEkoa zuen aita. Ezagutu nuen gizon hura, txapel eta makulu, Lizarra bere sorlekuko karrketan barrena. 1936ko uztailaren 19an kartzelatu zuten. Gero, “bakea” etorrita, Euskal Herrian bizitzeko debekua ezarri zioten hainbat urtez. Haren semeak, ordea, duda guti izan zuen lehenengo hauteskundeetan nafar eskuinari botoa emateko. Ez da hain bakana. Horra Miguel Sanz, jarduneko lehendakaria. Haren aurrekoen artean errepresaliatu errepublikazaleak izateak ez dio inoiz eragotzi 1936ko errepresio basatia kondenatzeari behin eta berriz uko egitea. Halako kasuek txunditzen gaituzte. Sumintzen ere bai. Ez kontrakoek.

Ez naiz entzun zaharra: “galdu genuen gerla hura”. Gaztetan abertzaletua zen, hala zioena. Haren aitaxi karlistaburua nahasirik egon zen Molaren kolpearen antolakuntzan. Geroko errepresiotik ere ez zen, itxuraz, hain urrun ibilia. Inor irabazle izan baldin bazen, hura izan zen irabazle. Hala ere, “galdu genuen gerla”, haren ilobak.

Azken lerro hauek, jakina, geroagoko gogoteren kume dira. Gerla galduaren aipuak, entzun nuen instantean, ez zidan minik eman belarrian. Guk ere, etxean, halaxe erran izan diogu 36koari. Hartatik zenbateraino sentitzen ahal garen galtzaile eztabaidagarria izan daiteke, haatik, zorrotz aztertzerara. Etxekoan mitologian aise egin diegu lekua aitaren alde-tikakoen erbesteci, heriotza zigorrei eta kontzentrazio zelaiei. Aldiz, inon ez dira agertzen amaren hiru osaba Jainkoaren eta Espainiaren alde hilak. Bertzeak bezain familiako dira, baina nekez ateratzen dugu haien solasik. Herri honen historiaren gainean abertzaletasunak (ere) egin duen eraikuntza alderdikoiaren irudira, gogaidetasuna dugu inor arbaso izendatzeko giltza, ez odolkidetasuna.

Zazpi hamarkada iragan dira 1936tik honat. Gertakari haien lekuko izan zirenetarik bizirik gelditzen diren apurrek 80 urtetik goiti dituzte. Hala izanik ere, oroimen bizia dira geure burua galtzaile egiten segitzen dugunon artean. Oroimen bizia, irabazleen iloba ideologikoez ahanztura hobesten duten neurri berean noski.



ALBERTO ELOSEGI

Madrilgo Gobernuak atera nahi duen Memoria Historikoaren Legearen gaineko eztabaidak agerian utzi du noraino mintzen dituen gai honek bazterrak. Gauza bera erakusten dute Durangoko eta Gernikako bonbardaketan edo San Kristobal gotorlekuko ihesaren urteurrenek. Dokumentalak, fikziozko pelikulak, liburuak, diskoak... gerla galdu hura inoiz ez bezalako inspirazio iturria dugu, sormenerako nahiz ikerketarako. Nor harrituko, hainbertze hilotz izanda gaizki edo behar ez zen tokian ehortziak? Nor miretsiko, hainbertze zauri izanda hetsi gabe?

Dena ez da, nolana ere, hilotz eta zauri. Aukera historiko galdu baten oroiminak ere zafratzen gaitu gerla gogora ekartzean. Egungo ezkertiar petoak, Berlingo murrua erortzen ikusi duen berak, segitzen du gordetzen bere arimaren zokoren batean Francok eragotzi zuela paradisu sozialistaren etorrera. Bertzalde, zenbat abertzalek ez ote dion orduko derrotari egotzen (Hego) Euskal Herriaren independentzia lortu ez izana? ETA litzateke, bistan dena, orduko haren ondorio eta segida logikoa.

Kontua da Euzkadik –erran nahi baita, Espainiako Errepublikak– gerla irabazi balu ere, datu bakarrik ere ez dugula aurkituko testuinguru historiko-geografikoan lur puska hau independente eta/edo sozialista izan zitekeela pentsarazten ahal digunik. Aitzitik, testuinguru horri berari begira aiseago ondorioztatzen ahal dugu Euzkadik –erran nahi baita, Espainiako Errepublikak– gerla irabazi balu, egungo Hego Euskal Herriak erkidego autonomo bat osatuko lukeela, Europa Mendebaldeko gainerako estatuekin guztiz parekagarria izanen zen errepublika espainiar baten barnean. Erkidego bat –eta ez bi– kasurik hoberenean, bistan dena.

Horren guztiaren segurtasuna izanagatik ere, ezin, alabaina, gerla hura gogora ekarri bihotza kordokatu gabe. Niretako ere, haren amaiera baino 21 urte geroago sortuagatik, galdu genuen gerla da dena delako gatazka hura. Mundura orduko, galdun ginen gu. Agian gure seme-alaben seme-alabak irabazian jaioko dira noizbait. Eta ez naiz prezeski gerla batez ari. ■

Egungo ezkertiar petoak, Berlingo murrua erortzen ikusi duen berak, segitzen du gordetzen bere arimaren zokoren batean Francok eragotzi zuela paradisu sozialistaren etorrera